

# 1. UNITATEA

## AZALPENA

---

Azken xede moduan, norberaren aurkezpena ahoz egingo dute ikasleek. Ikasturteko lehen unitate honetan, Mari, euskal mitologiako pertsonaia, aurkeztuko zaie. Txotxongilo hori euskararen sinboloa edo maskota izango da. Berarekin batera, bost ardi aurkeztuko zaizkie, bakoitza bere izenarekin. Urte osoan, sinbolo horien bidez, euskararekiko lotura mantenduko dute; proiektuak aurkeztu, eta informazioa bideratuko dute.

Horretarako, unitatean, norberaren aurkezpenarekin batera, ikasle bakoitzak bere txapa egingo du, euskara ikasgai erabiltzeko.

Azkenik, ikasle bakoitzak, bere buruaren aurkezpena egiteko, paperezko panpina erabili ahal izango du.

## METODOLOGIA

---

*Zer ikasiko dugu?*, ikasleek zer landuko duten eta zer egingo duten aurkezteko. Eta, proiektua bukatzeko, landutakoarekin sortu beharko dutenaren gidioa aurkezteko.

CDa, ereduak ulertu, aztertu eta ikasteko.

Mari txotxongiloa, euskaraz hitz egiteko eta errutinetarako.

Norberaren paperezko panpina, euskarazko aurkezpenak egiteko.

Pertsonaien txapak, euskaraz hitz egiteko.

Kartak, hiztegia jolasaren bidez lantzeko.

## EDUKI MULTZOAK

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### Edukiak

Ereduaren laguntzaz, norberaren aurkezpena egitea.

Grabazioetako aurkezpenak entzutea.

Aurkezpeneko datu zehatzak identifikatzea eta izendatzea.

Besteen ahozko aurkezpenetan, errespetuz jokatzeko.

Jolasetan, oinarritzko elkarrizketa bideratzea.

##### Ebaluazio-irizpideak

1. Abesti eta jokoen bidez, norberaren eta besteen kanpoko ezaugarriak eta zaletasunak ezagutzea, pertsonak ahoz deskribatzen ikasteko.
2. Entzungaiak ulertzea, pertsonen datu zehatzak identifikatuz, arreta garatzeko.

##### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Aurkezten du bere burua: nor den, ezaugarri fisikoak eta zaletasunak.
- 1.2. Badaki aurkezpena ordenaz esaten.

- 2.1. Ereduak entzuterakoan, identifikatzen ditu pertsonaien ezaugarriak.
- 2.2. Oinarritzen da eredueta, informazio zehatza identifikatzeko eta erabiltzeko.
- 2.3. Badu besteek aurkezten dutenarekiko interesa.
- 2.4. Ahozko jardueretan, interesa dauka eta arretaz entzuten du.
- 2.5. Ondo ulertzen du irakasleak esandakoa: nor den, nolakoa den, zer zaletasun dituen.

### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

#### Edukiak

- Irudietatik informazioa ateratzea.
- Aurkezpenaren egitura ezagutzea.
- Ereduen laguntzaz aurkezpena idaztea.
- Irudiaren esanahia dagokion testu idatziarekin erlazionatzea.

#### Ebaluazio-irizpideak

3. Testu idatziak ulertzea, zentzu orokorra ondorioztatuz, marrazkiak interpretatuz eta irudia hitzarekin lotuz, norberaren ezaugarriekin erlazionatzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Badaki irudietatik informazioa ateratzen eta idatziz zein ahoz esaten.
- 3.2. Erlazionatzen ditu irudia eta testua.
- 3.3. Testua ulertzeko, gai da hitzen eta irudien esanahiaz baliatzeko.

### **Literatura- hizkuntza**

#### Edukiak

- Mariren abestia pozik entzutea, ikastea eta abestea.
- Esku-jolasak ikastea eta jolastea.

#### Ebaluazio-irizpideak

4. Abestiak eta jolasak ikastea eta jolastea, pertsonen ezaugarriak ikasteko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Mariren abestia entzutean, abestean eta esku-jolasean, gogotsu hartzen du parte.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

- Zaletasuna adieraztea: ...gustatzen zait.
- Ahozko hizkuntzaren eta idatziaren arteko desberdintasunaz jabetzea.
- Pertsonen ezaugarri fisikoak.
- Koloreak: gorria, beltza, urdina, horia, berdea, marroia.

Buruaren atalak: begiak, ilea, sudurra, ahoa, belarriak.  
Euskara, komunikatzeko hizkuntza moduan ikustea eta aurkezpenean erabiltzea.

Ebaluazio-irizpideak

5. Norberaren eta besteen kanpoko ezaugarriak ezagutzea, deskribapenak egiteko.

Ikasketa-adierazleak

- 5.1. Aurkezpena egiterakoan, erabiltzen ditu egitura eta lexiko egokiak.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Norberaren eta besteen gorputzeko ezaugarriak ezagutzea eta adieraztea.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Irudiak interpretatzea.
- Ahozko ekoizpenak egitea.
- Besteen aurkezpenak entzutea
- Aurkezpenak entzutea eta ulertzea
- Aurkezpen idatzia egitea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Komunikazio-arazoak konpontzeko, lankidetzan aritzea.
- Ikasteko behar duena aurretik ezagutzea eta informazioa helburua betetzeko antolatzea.

### **Gaitasun digitala**

- Hainbat iturritatik, idatzikoak zein digitalak, informazioa jasotzea.
- Jasotako informazioa era ordenatuan antolatzea.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Jolasetan aritzean, elkarri errespetatzea.
- Besteen ekoizpenak errespetatzea eta onartzea.
- Gelakideen ezaugarriak errespetatzea eta onartzea.
- Lankidetzan aritzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Euskal mitologiako pertsonaiak balioestea.
- Interesa adieraztea, kulturako hainbat jardueratan parte hartzeko.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Motibazioa erakustea, lana egiterakoan.
- Sormena eta ekimena izatea, lana burutzerakoan.
- Norbere burua ezagutzea, kanpoko ezaugarrien bidez.

## 2. UNITATEA

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, ahoz nor etorri eta falta den azalduko dute, eta arduraduna aukeratuko dute.

Unitate honetan, bi errutina betetzeko behar dituzten hizkuntza-egiturak ulertzen, lantzen eta erabiltzen ikasiko dute. Errutinak betetzeko materiala prestatuko dute, unitatean zehar.

Lehenengo, arduraduna aukeratuko dute. Horretarako, aurreko unitatean landutako pertsonen ezaugarriak gogoratu eta erabiliko dituzte: altua/baxua/lodia/argala.

Ilearen luzera eta kolorea, begien kolorea, neska edo mutila den.

Urtean zehar beste egitura konplexuago batzuk erakutsiko zaizkie:

Betaurrekoak ditu.

Irakurtzea gustatzen zaio.

Daraman arropa eta kolorea...

Arduradun hori Mari txotxongiloaz eta errutinak betetzeaz arduratuko da.

Bigarren errutinan, nor etorri eta falta den ikasiko dute.

Denok etorri gara, ... etorri da? Bai, hemen nago / Ez da etorri. Nor falta da?

Zenbat falta dira?...

### **METODOLOGIA**

---

Talde handian, denek batera, ahozkoasuna lantzeko, eskulanetan paperezko etxea prestatuko dute, leiho eta guzti, falta diren ikasleen panpinak etxe horretan kokatzeko.

Ardurez ohartzeko edo lan-ohitura garatzeko, arduradunak Mariren eta errutinak betetzearen ardura izango du. Mari atera eta gorde egingo du.

Ahozkoasuna lantzeko, halaber, gelako gauzen hiztegia eta familien karta-jolasa prestatuko dituzte, gero jolasteko.

CDan behar dituzten hizkuntza-baliabideak jasoko dituzte, eta mitologiako pertsonaia ezagutuko dute.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

**Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

Edukiak

Nor etorri eta falta den: denok etorri gara ...

Errutina ulertzea eta adieraztea.

Pertsonen ezaugarri fisikoak adieraztea, laguntzarekin.

Errutinako galde-erantzunak adieraztea, ereduarekin.

Solasaldirako txandak errespetatzea.

### Ebaluazio-irizpideak

1. Nor etorri eta falta den esaten ikastea, egitura zuzenak eta galde-erantzunak ordena egokian erabiliz, solasaldian aritzeko.
2. Gelako arduraduna aukeratzea, kanpoko ezaugarriak erabiliz, errutinen ardura betetzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Errutinako adierazpenean, kontuan hartzen ditu galde-erantzunak, eta horren arabera jarraitzen du.
- 1.2. Errutina betetzean, adi dago eta parte hartzen du.
- 1.3. Ondo esaten du falta direnen kopurua.
- 2.1. Arduraduna aukeratzeko, ondo erabiltzen ditu kanpoko ezaugarri fisikoak.
- 2.2. Gelako errutinetan, gogoz parte hartzen du, eta betetzen du bere ardura.

## **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

### Edukiak

Irudietatik informazioa ateratzea eta idaztea.  
Ereduak birmoldatzea

### Ebaluazio-irizpideak

3. Errutinako, idatzizko esaldiak eta esapideak ulertu, marrazkiak interpretatuz, laguntzarekin bizitzako egoeran erabiltzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ondo ulertzen du komikietako informazioa.
- 3.2. Irudietan, badaki inferentziak egiten, testua interpretatzeko.
- 3.3. Ondo ulertzen ditu errutinako esamoldeak eta galderak: betetzen du esanahiak adierazten duena.

## **Literatura- hizkuntza**

### Edukiak

«Basajauna» ipuina ulertzea.  
«Oihanaren bazterretik» abestia ulertzea, ikastea eta antzeztea.

### Ebaluazio-irizpideak

4. Jarraibideak ulertzea, baliabide linguistikoak eta ez-linguistikoak erabiliz, panpina egiteko.
5. Ipuina eta abestia entzutea eta ulertzea, marrazkien laguntzaz, tradizioa ezagutzeko eta haietaz gozatzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Entzumenean, identifikatzen ditu errutinako esamoldeak.
- 4.2. Arretaz entzuten du, eta betetzen ditu jarraibideak.
- 5.1. Badaki «Basajauna» ipuina ordenatzen.

5.2. Ondo antzezten du «Oihanaren bazterretik» abestia, keinuak erabiliz.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### **Edukiak**

Nor etorri eta falta den: denok etorri gara, denok gaude, etxean nago, zenbat falta dira... bereiztea eta erabiltzea.

Pertsonen kanpoko ezaugarri fisikoak: ilea eta begien kolorea, itxura... ezagutzea.

Zenbakien kopurua bereiztea.

Euskaraz komunikatzeko Interesa izatea.

### **Ebaluazio-irizpideak**

6. Errutinetako egiturak, laguntzarekin, zuzen erabiltzea, elkar ulertzeko.

### **Ikasketa-adierazleak**

6.1. Errutinako esapideak, laguntzarekin edo irakurrita, ondo esaten ditu: nor etorri edo falta da, denok gaude, zenbat falta dira, non dago...

6.2. Badaki falta direnen kopurua esaten.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Pertsonen kanpoko ezaugarriak identifikatzea eta bereiztea.
- Zenbakien kopurua eta adierazpen grafikoa.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Arduradunaren deskripzioa egitea.
- Errutina ulertzea eta ahoz esatea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Aurreko unitatean ikasitakoa gogoratzea eta erabiltzea.

### **Gaitasun digitala**

- Irudietatik informazioa ateratzea.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Gelakideen ezaugarri fisikoak balioestea.
- Besteen ideiak errespetatzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Euskal ipuin eta abestiak gogoz entzutea, eta jolasetan gogoz parte hartzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Ardurak betetzea.
- Gelako arduretan parte hartzea.

## 3. UNITATEA

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, «Bakar-bakarrik bizi zen» ipuina ulertu, ikasi, osagarriak prestatu eta lanak banatuko dituzte, gero antzezteko.

Unitate honetan, ipuin bat ikasi ondoren, antzeztu egingo dute. Ipuinaren egiturak errepikakorrak direnez, erraz ikasiko dituzte, beste egoera batzuetan erabiltzeko. Gorputz atalak eta zenbaki ordinalak ikasiko dituzte, antzerkiaren bidez. Antzezpena egiteko, gorputz atalak prestatuko dituzte, paperez edo kartoi mehez. Txartel-itxura emango zaie, ikasleek errazago hartzeko.

### **METODOLOGIA**

---

Talde osoak hartuko du parte antzezenaren prestakuntzan.

Bakoitzak gorputz atal bat aukeratu, eta ardura hori aurrera eramango du. Aldi berean, antzezenean, paperak banatuko dira, eta bakoitzak bere testuaren ardura izango du.

Mahai-jolasa, oinarriko kontzeptuak erabiltzeko, jolas-giroan erabiliko da. Abestien bidez, gorputz atalak eta ordena berrikusiko dira.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### Edukiak

- «Bakar-bakarrik bizi zen» ipuina ulertzea.
- Antzezteko ordena ezagutzea eta jarraitzea.
- Txandak errespetatzea.
- Ipuina antzeztea.

##### Ebaluazio-irizpideak

1. Antzezlana denon artean egitea, istorioaren denbora-segidari eta informazioaren progresioari jarraituz.

##### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Narratzaileak badaki dagokion ordenaren arabera hitz egiten.
- 1.2. Pertsonaia bakoitzak badaki dagokion ordenaren arabera hitz egiten.
- 1.3. Errespetatzen ditu solasaldiko arauak.
- 1.4. Gai da errepikatzen diren esapideak keinuz egiteko.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### Edukiak

Irudietatik informazioa ateratzea.  
Irudiak testu idatziarekin erlazionatzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Ipuina jolasen, abestien eta irudien bidez ulertzea, antzezpen egokia egiteko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ondo interpretatzen ditu ipuinaren irudiak.
- 2.2. Gorputz atala kontuan hartuz, identifikatzen du esapidea.
- 2.3. Badaki gorputz atalak zenbaki ordinalen arabera ordenatzen.

## **Literatura- hizkuntza**

Edukiak

Ipuinaz gozatzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Denon artean, antzezlenerako gorputz atalak egitea eta osagarriak prestatzea, antzezlanean parte hartzeko eta ongi pasatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Eskulanak egitean, egiten ditu proposamenak.
- 3.2. Gorputz atalak egitean, gogoz hartzen du parte.
- 3.3. Antzerkia prestatzean, gogoz hartzen du parte.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Ipuinaren atalak identifikatzea: hasiera, mamia eta bukaera.  
Antzerkiko elementuak bereiztea: narratzailea, pertsonaiak, dekoratua...  
Zenbaki ordinalak: 1.a, 2.a, 3.a...  
Espazioari buruzko hitzak: aurrean, atzean, barruan, kanpoan, gainean eta azpian.

Ebaluazio-irizpideak

4. Antzezlanean, laguntzarekin, esapide egokiak eta dagokien ordenan esatea, narratzailea eta pertsonaiak bereiziz, denentzat ulergarria izateko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Narratzaileak eta pertsonaiek, laguntzarekin, badakite egitura zuzena erabiltzen.

## **GAITASUNAK**

**Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarritzko gaitasunak**



- Gorputzaren atalak identifikatzea eta ikastea.
- Denbora-segida erabiltzea; ordinalak.
- Espazioari buruzko hitzak erabiltzea.

#### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Ipuina ulertzea eta antzeztea

#### **Ikasten ikastekoa**

- Erabakiak hartzea eta betetzea.

#### **Gaitasun digitala**

- Informazioa ordenatzea eta antolatzea, denbora kontuan hartuz.

#### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Talde-lanean aritzea, antzezpena aurrera ateratzeko

#### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- «Bakar-bakarrak» ipuina antzeztea.
- Irudimena erabiltzea, jantziak edo apaingarriak egitean.

#### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Ideiak taldean proposatzea.

## **4. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, pertsonaia bati oharra idatziko diote.

Unitate honetan, hortzak erortzearen inguruko ohiturei buruzko hainbat gauza ikasiko dituzte. Hortzaren inguruko euskal pertsonaia aurkeztuko zaie, eta berari dagokion leloa ere bai. Aldi berean, kultura-aniztasunari begira, beste kultura batzuetako pertsonaiak eta ohiturak ezagutuko dituzte. Gainera, ohar errazak irudien bitartez ulertzen eta idazten ikasiko dute. Azkenik, nongo mina duten adierazten ikasiko dute.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka jolastuko dira, karta-jokoan. Era horretan, «nongo mina» eta «nola sendatu» egiturak erabiliko dituzte.

Kukaren abestiaren bidez, egitura horiek indartuko dira, jolas-giroan. Idazmena sustatzeko, piktogramak erabiliko dira, era errazean, euskaraz komunikatzeko.

Komikiaren bitartez, mitologiako pertsonaia eta leloa aurkeztuko zaizkie, azken hori ikasteko eta ahoz esateko.

Kultura-aniztasuna dela eta, beste pertsonaia batzuk ezagutuko dituzte.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Nahiak ahoz adieraztea.

Entzumenak entzutea eta ulertzea.

Norberaren osasun-egoera ahoz adieraztea.

Elkarrizketa errazak ulertzea eta, ereduaren laguntzaz, ahoz adieraztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Abestia ulertzea eta ikastea, jolasen bidez birmoldatuz, bizitzako osasun-egoerak adierazten ikasteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Ulertzen du abestiak dioena, eta badaki ekintza edo keinuen bidez egiten.
- 1.2. Ondo interpretatzen ditu besteen keinuak.
- 1.3. Laguntzarekin, badaki abestia pertsona eta minaren arabera aldatzen.
- 1.4. Esaten du nongo mina duen, laguntzarekin.
- 1.5. Gauza da nahiak adierazteko, laguntzarekin.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Irudien bidez komunikatzea.

Irudien laguntzaz, nahiak idaztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Oharrak ulertzen eta idazten jakitea, atalak argi bereiziz eta haien funtzioaz jabetuz, bizitzako hainbat egoeratan erabiltzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Idazten ditu ohar errazak, laguntzarekin.
- 2.2. Badaki irudien esanahia interpretatzen, eta ondo adierazten du mezua, ahoz zein idatziz.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### **Edukiak**

Abestia ulertzea eta abestea.

Saguzarraren leloa ulertzea.

Abestia eraldatzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

3. Euskal pertsonaia ezagutzea, beste kulturetakoekin konparatuz, ikuspuntua zabaltzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ulertzen du saguzarrak hortzarekin duen erlazioa.
- 3.2. Identifikatzen ditu saguzarra eta beste kultura batzuetako pertsonaiak.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

#### Edukiak

- Oharraren egitura ezagutzea.
- Oharraren funtzioaz jabetzea.
- Familiako kideen inguruko lexikoa: ama, aita, aitona, amona...
- Osasunari buruzko lexikoa: buruko, ahoko, hankako...mina.

#### Ebaluazio-irizpideak

4. Oharraren elementuak ulertzea eta haien funtzioa ezagutzea, ahalik eta ondoen komunikatzeko.

#### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Badaki oharraren atalak identifikatzen.
- 4.2. Zuzen idazten du atal bakoitzari buruzko informazioa.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Osasun-ohiturak.
- Familiako kideak ezagutzea.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Nahiak adieraztea.
- Oharren bidez komunikatzea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Zerbait ez dakienean, informazioa eskatzea.

### **Gaitasun digitala**

- Komunikatzeko, adierazpen ezberdinak erabiltzea.
- Informazioa jasotzea, ohiturari buruz.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Beste kultura batzuetan hortzen inguruan dauden pertsonaiak ezagutzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Beste kulturetako pertsonaiak.
- Saguzarraren ohitura ezagutzea.

## **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Idatzi behar dena planifikatzea, pentsatzea eta idaztea.

# **5. UNITATEA**

## **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, Olentzerori eskutitza idatziko diote. Gabonetako ohiturez hitz egingo dute, eta gure pertsonaia, Olentzero, aurkeztuko zaie. Ipuina entzun eta marrazkien bidez interpretatuko dute, panpina eta jostailuz beteriko zakua paperez egiteko. Azkenik, ereduari jarraituz, bakoitzak bere eskutitza idatziko du, postontzira eramateko.

## **METODOLOGIA**

---

Banakako lana: bakoitzak bere eskutitza idatzi behar du. Komiki, CD eta abestien bidez, Gabonetako ohiturak aurkeztuko dizkiegu, eta animatuko ditugu ohitura horietan parte hartzeko. Olentzeroren abestia eta ipuina ikasi, abestu, panpina jantzi eta zakua apainduko dute, pertsonaiaren eginbeharrak ohartzeko eta jantzien izenak berrikusteko. Taldeka, mahai-jolasean arituko dira, hiruhilekoan zehar landutakoa jolas-giroan erabiltzeko.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

- Gabonetako ohiturak ahoz adieraztea.
- Besteek diotena entzutea eta ulertzea.
- Entzumenak entzutea eta ulertzea.
- Elkarrizketa errazak ulertzea eta, ereduaren laguntzaz, ahoz adieraztea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Norberak Gabonetan dituen ohiturak besteei ahoz adieraztea, elkar ezagutzeko

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Irakaslearen laguntzaz, adierazten du Gabonetako zer ohitura dituen.
- 1.2. Hainbat euskarriren laguntzaz, badaki zer nahi duen esaten.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Nahiak idaztea.  
Irudien laguntzaz komunikatzea.  
Ereduen bidez, eskutitzaren atalak identifikatzea eta bereiztea.  
Eskutitzaren hasierako eta bukaerako agurrak bereiztea.  
Eskutitza ulertzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Eskutitza idaztea, atalak errespetatuz, marrazki eta erreduen laguntzaz, bizitzako hainbat komunikazio-egoeratan erabiltzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ereduaren laguntzaz, idazten ditu eskutitz argiak.

## **Literatura- hizkuntza**

Edukiak

Olentzeroren ipuina ezagutzea eta ulertzea.  
Gabonetako abestiak ezagutzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Euskal kulturako Gabonetako pertsonaia nagusia, Olentzero, eta ohiturak ezagutzea, ipuina, abestiak eta eskulanak erabiliz, Gabonetako ohiturak ikasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Ulertzen du nor den Olentzero eta zer egiten duen.
- 3.2. Ulertzen ditu Olentzero egiteko jarraibideak, eta ondo egiten du ariketa.
- 3.3. Badaki Olentzeroren ipuina ordenatzen.
- 4.4. Badu ipuina entzuteko interesa.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Eskutitzaren egitura: hasiera eta bukaerako agurrak, norberaren aurkezpena, zer nahi dudan, sinadura.  
Aditza singularrean eta pluralean identifikatzea.

Ebaluazio-irizpideak

4. Eskutitzaren atalak ezagutzea, erreduak aztertuz, bakoitzak bere eskutitza idazteko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Bereizten ditu eskutitzaren atalak.
- 4.2. Erabiltzen ditu agurrak idazteko egitura egokiak.

## **GAITASUNAK**

**Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarritzko**

### **gaitasunak**

- Gabonak eta Gabonetako ohiturak.
- Familiako kideak ezagutzea.
- Ordena lantzea, Olentzeroren ipuina ordenatzean; ordinalak.
- Jarraibidezko testua egitean, ordena interpretatzea.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Idatziz komunikatzea: gutuna.
- Solasaldian aritzea, elkarrizketa errazak erabiliz.
- Eskutitzak interpretatzea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Informazioa bilatzea eta antolatzea, proiektua burutzeko.
- Gabonetako ohiturak ezagutzeko jakin-mina izatea.

### **Gaitasun digitala**

- Informazioa aurkitzea eta antolatzea, eskutitza idazteko.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Beste kulturak errespetatzea.
- Gabonetako ohiturak errespetatzea.
- Gabonetako ohituretan parte hartzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Eskulanak egitea.
- Olentzero ezagutzea.
- Gabonetako euskal ohiturak zein diren jakitea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Norberaren izaera ezagutzea.

## **6. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, denon artean, gelako urtebetetze-tarta egingo dute, gero urtebetetzeak zoriontzeko.

Unitate honetan, bi xede edo eginkizun izango dute. Alde batetik, gelakoen urtebetetze-eguna finkatzeko, paperezko edo kartoi mehezko tarta bat egingo dute; bestetik, errutina berria ikasiko dute. Gelakide guztiek parte hartuko dute tarta egitean, eta ardurak denen artean banatuko dira.

Urtebetetze-tarta hori horma-irudi moduan jarriko da, eta errutina betetzean, egun horretako urtebetetzea norena den jakingo dute. Eta ahoz adieraziko dute.

Beste alde batetik, idatzizko errutina berria ikasiko dute: eguna adieraztea.

Baina hilabetearen izena eta zenbakia baino ez dute erabiliko. Hori egiteko, arduradunak hilaren izena irakurriko du egutegian, eta, ondoren, egunaren zenbakia identifikatu eta ahoz esango du. Gero, arbelean idatziko du.

## **METODOLOGIA**

---

Taldeka banatuta, gela osoak errutina betetzeko materiala prestatuko du. Bakoitzaren ardura betetzea eta garrantzia ematea landuko da. CDaren bidez, behar dituzten esapideak ulertu eta ikasiko dituzte. Binaka, irudiak interpretatuko dituzte, gero eskulana egiteko. Datuak jasotzen eta informazioa tauletan antolatzen ikasiko dute. Kandelaren bidez, informazioa antolatu eta ahoz adieraziko dute. Banaka, bakoitzak orain arte landutakoa balioetsiko du.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

- Urtebetetzeetan zorionak ematea eta abestea.
- Urtebetetzearen errutina esatea: eguna eta noren urtebetetzea den.
- Egunaren errutina adieraztea.
- Gelakideak zoriontzeko gogoia eta interesa izatea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Zer egunetan den eta noren urtebetetzea den ahoz esatea, urtebetetze-tartaren laguntzaz gelakideak zoriontzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Badaki noren urtebetetzea den eta noiz den esaten.
- 1.2. Adierazten du zer egun den.
- 1.3. Zoriontzen du gelakidea.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

- Egutegiko elementuak (hilabeteak, asteko egunak, zenbakiak) identifikatzea eta idaztea.
- Jarraibide-testuko egitura bereiztea eta ulertzea.
- Errutinarako kandelak idaztea: hilabetea, eguna, noren urtebetetzea den.
- Irudietan oinarrituz, hipotesiak egitea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Eguna eta errutinarako kandelak idaztea, informazioa jasoz eta antolatuz, gelakideak zoriontzeko eta eguna adierazteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Egutegiaren laguntzaz, idazten du eguna.
- 2.2. Badaki urtebetetzei buruzko informazioa galdetzen, biltzen eta

- ordenatzen.
- 2.3. Idazten du informazioa kandelan.

## **Literatura- hizkuntza**

### **Edukiak**

Zorion-abestia.

### **Ebaluazio-irizpideak**

3. Abestia ulertzea eta ikastea, gelakideak zoriontzeko.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 3.1. Abesten du urtebetetzeetan.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### **Edukiak**

Denbora-segidako konektoreak: lehengo, gero, ondore, azkenik.

Asteko egunak: astelehena, asteartea, asteazkena...

Hilabeteen egunak: urtarrila, otsaila...

Noren urtebetetzea den: Josuren...

### **Ebaluazio-irizpideak**

4. Jarraibide-testuaren atalak bereiztea, denbora-segida landuz, urtebetetze-tarta egiteko.
5. Eguna idazteko ordena ezagutzea.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 4.1. Ondo egiten du jarraibide-testuak dioena.
- 4.2. Laguntzarekin, gauza da idatziz eta ahoz egitura zuzenak erabiltzeko.
- 5.1. Ordena egokia erabiltzen du eguna esatean edo idaztean.

## **GAITASUNAK**

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Denbora antolatzea: egutegia.
- Denbora ordenatzea: urtebetetze-tartan denen urtebetetzeak kokatzea.
- 1etik 31ra arteko zenbakiak erabiltzea.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Ahoz zoriontzeta.
- Zer egunetan bizi garen idatziz zein ahoz adieraztea.
- Jarraibideak ematea, ahoz zein idatziz.

### **Ikasten ikastekoa**

- Talde-lanean aritzea, ekoizpena aurrera ateratzeko.



### **Gaitasun digitala**

- Adierazpen ezberdinak erabiltzea.
- Informazioa besteei komunikatzea.
- Informazioa hainbat iturritatik jasotzea.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Errespetuak elkarbizitzarako duen garrantzia ulertzea.
- Besteen ideiak errespetatzea.
- Lankidetzan aritzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Eskulanak egitea.
- Ohiturak betetzea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Autorregulazioa: egin dutenaren balioespena.

## **7. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, denen artean, eguraldi-txartela egingo dute, eta data idaztean, astearen eguna jarriko dute.

Unitate honetan, errutina ikasiko dute berriro. Aurreko unitatean ikasitako idatzizko errutinari, asteko eguna jarriko diote. Hau da, asteko egunak ikasiko dituzte, eta, bestalde, ahozko errutina berria ere bai. Azken hori egiteko, eguraldi-txartela prestatuko dute, denen artean, eta asteko egunak eta naturako fenomenoak adieraziko dituzte. Ondoren, zer eguraldi egiten duen ahoz adierazten ikasiko dute.

### **METODOLOGIA**

---

Talde-lana egingo dute, errutinarako materiala prestatzeko. Denen artean, zer fenomeno egin aukeratuko dute.

Taldeka, karta-jokoan arituko dira, eguraldia adierazteko esapideak ikasteko.

CDaren bidez, beharrezko egiturak ulertu eta ikasiko dituzte.

CDaren bidez, unitatean landutako egoerak ulertu eta datuak jasoko dituzte.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

Edukiak

Eguraldia ulertzea eta ahoz adieraztea.

Ahozko errutinak: eguraldia eta data.

Eguraldiaren errutina esatea.

Ebaluazio-irizpideak

1. Ohiko eguna eta eguraldia ahoz adieraztea, naturako fenomenoetarako behatuz, ereduaren laguntzaz euskaraz bizipenak kontatzen ikasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Ondo interpretatzen du eguraldi-txartelean kokatutako informazioa, eta ahoz esaten du.
- 1.2. Ondo adierazten du zer eguraldi egiten duen.

### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

Edukiak

Irudietatik informazioa ateratzea eta idaztea.  
Informazioa tauletan antolatzea: eguraldi-txartela interpretatzea.  
Fenomeno atmosferikoak identifikatzea, bereiztea eta idaztea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Eguraldi-txartela egitea, denen artean eguraldiaren informazioa bertan jasotzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ulertzen ditu irakaslearen jarraibideak, eta, horiek kontuan hartuz, parte hartzen du eguraldi-txartela egiten.
- 2.2. Ondo kokatzen ditu asteko eguna eta fenomeno atmosferikoa eguraldi-txartelean.
- 2.3. Gogoz hartzen du parte eskulanetan.
- 2.4. Ereduari jarraituz, eta laguntzarekin, badaki errutina osoa idazten.

### **Literatura- hizkuntza**

Edukiak

«Do, Re, Mi» abestia ikastea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Abestia ulertzea eta ikastea, adierazten duena mimikaren bidez egiten jolasteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Abestean, egiten ditu keinuak.
- 3.2. Badaki esku-jolasean jolasten.

### **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Asteko egunen izenak: astelehena, asteartea...  
Hilabeteen izenak: urtarrila, otsaila...  
Fenomeno atmosferikoen izenak: euria, elurra...

Ebaluazio-irizpideak

4. Asteko egunak, hilabeteak eta fenomeno atmosferikoen izenak ezagutzea, jolas eta abestien bidez errutinak esateko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ondo esaten du data, ordena egokian: hilabetea, eguna, astearen eguna.
- 4.2. Eguraldia adieraztean, gauza da lexiko egokia erabiltzeko.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Eguraldia eta naturako fenomeno atmosferikoak erabiltzea.
- 1etik 31ra arteko zenbakiak.
- Taulak interpretatzea.
- *Denbora* kontzeptua ulertzea: urtea, hilabetea...
- Asteko egunak.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Abestiak interpretatzea.
- Eguraldia adieraztea.
- Irudiak interpretatzea.
- Ipuina eta abestiak ulertzea.
- Data idaztea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Ikasitakoa aurreko errutinan txertatzea, informazio gehiago emanaz.

### **Gaitasun digitala**

- Informazioa interpretatzea eta taulan sailkatzea.
- Internet erabili bada, eguraldiari buruzko informazioa jasotzeko eta mapa interpretatzeko.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Txartela lankidetzan egitea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- «Do, Re, Mi» abestia.
- Irudimena erabiltzea, lana burutzeko.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Ekintza talde-lanean planifikatzea.

## 8. UNITATEA

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, bakoitzak bere mozorroa deskribatuko du, denek batera gelakoen mozorro-albuma egiteko.

Unitate honetan, inauterietako jaia noiz eta nola ospatzen den ikasiko dute. Zertaz mozorrotuko diren esaten ikasiko dute, eta mozorroen albuma idatziz egiten. Horretarako, bakoitzak bere mozorroa nolakoa den idatziko du, fitxa batean. Denon artean, aurkibidea prestatuko dute, eta, ondoren, azala. Deskripzioa egiteko, arropa eta osagaien izenak ikasi eta erabiliko dituzte.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka, jantzien horma-irudia egingo dute, izenak ikasteko. Hiru taldetan banatuko dira, eta bakoitza gorputz atal batez arduratuko da. Propaganda-liburuxketatik, taldeari dagokion atalerako jantziak aukeratu eta itsatsiko dituzte. Taldeka, azala eta aurkibidea proposatuko dituzte. Besteen iritziak onartzen eta errespetatzen ikasiko dute. Irudien bidez, beste kultura batzuetako inauteriak ezagutuko dituzte.

### **EDUKI MULTZOAK**

#### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### Edukiak

- Ereduetatik, informazio zehatza ateratzea.
- Zertaz mozorrotu den eta noiz esatea.
- Mozorroa ahoz deskribatzea.

##### Ebaluazio-irizpideak

1. Norberaren mozorroa besteei ahoz deskribatzea, gorputz atalaren arabera.

##### Ikasketa-adierazleak

- 1.1. Adierazten du zertaz mozorrotu den.
- 1.2. Badaki mozorroa deskribatzen: buruan eta gorputzean zer duen, zer osagai dituen.
- 1.3. Ereduaren laguntzaz, gauza da noiz mozorrotuko den esateko.
- 1.4. Errespetuz jokatzeko du, besteen azalpenak entzutean.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### Edukiak

- Aurkibidea idaztea.

Albumaren egitura bereiztea: azala, aurkibidea, edukia.  
Ereduaren laguntzaz, norberaren mozerro-fitxa idaztea.  
Aurkibidearen funtzioa ezagutzea.  
Inauterietako informazio- txartela interpretatzea.

Ebaluazio-irizpideak

2. Denen artean albumaren azala eta aurkibidea egitea, eta, banaka, mozerro-fitxa idaztea, erreduaren laguntzaz gelako albuma osatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ondo idazten ditu norberaren fitxako atalak.
- 2.2. Badaki era txukun eta ulergarrian idazten.
- 2.3. Irudien laguntzaz, badaki idatziaren esanahia interpretatzen eta ahoz adierazten.
- 2.4. Ondo idazten du informazioa aurkibidean.
- 2.5. Badaki fitxan zenbakia ordena egokian idazten.

## **Literatura- hizkuntza**

Edukiak

Inauterietako abestiak ulertzea, ikastea eta dantzatzea.

Ebaluazio-irizpideak

3. Abestia ikastea, adierazten duena mimikaren bidez egiteko.

Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Gogoz parte hartzen du abestean.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

Edukiak

Deskripzioaren egitura: buruan, gorputzean, osagarriak.  
Aurkibidearen funtzioa.  
Lexikoa: jantzien izenak.  
Ohituretan parte hartzea.

Ebaluazio-irizpideak

4. Aurkibidearen funtzioaz ohartaraztea, albuma osatzeko.

Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Ohartzen da aurkibidearen funtzioaz.
- 4.2. Badaki fitxa albumean ordenaren arabera kokatzen.

## **GAITASUNAK**

---

**Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarriko gaitasunak**

- Jaiak: inauteriak.

- Jantzi motak.
- Albuma antolatzea, aurkibidea kontuan hartuz.
- Orrialdeak ordenatzea, zenbakien bidez.

#### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Zertaz mozarrotu den ahoz adieraztea.
- Informazioa idatziz jasotzea.
- Albuma osatzea.
- Ipuina eta abestiak ulertzea.

#### **Ikasten ikastekoa**

- Lana planifikatzea eta burutzea.
- Talde-lanean aritzea.

#### **Gaitasun digitala**

- Informazioa aurkitzea.
- Informazioa aurkibidean antolatzea.

#### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Mozorroen aniztasuna errespetatzea eta onartzea.
- Munduko inauteriak ezagutzea.

#### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Ohiturak ezagutzea, eta mozarrotzea.
- Irudimena erabiltzea, mozarroa eta azala sortzerakoan.

#### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Plangintza egitea eta prozesuari jarraitzea, lana burutzeko.

## **9. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, ahozko asmakizunetan jolastuko dira. Unitate honetan, ahozkoa lantzeko, «Ikusi-makusi» jolasean jolastuko dira. Horretarako, beharrezko elkarrizketa ikasi eta erabiliko dute. Hasieran, oinarrizko galderari erantzungo diote, baina, gero, lexiko zehatzagoa erabiliko dute: pertsona, animalia, landarea, jostailua ... Azkenik, zentzumenen izenak erabiliko dituzte, jolasean euren hiztegia eta adierazkortasuna zabaltzeko.

### **METODOLOGIA**

---

Denak batera edo taldeka jolas daitezke, ahozkotasuna garatzeko. Ahozko adierazpena garatzeko, zentzumenen jolasa egingo dute, taldeka, egoera berrietan ikasitako egiturak erabiltzeko.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Jolasaren egitura, galde-erantzuna, identifikatzea.

Izenak esanahiaren arabera sailkatzea.

Esaldien segida, nork hitz egin behar duen, bereiztea eta erabiltzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Jolasaren sekuentzia ulertzea, hainbat eratako ekintzen bidez, autonomiaz jolasteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

1.1. Errespetatzen du txanda.

1.2. Jarraitzen dio jolasaren galde-erantzunen segidari.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Izenak esanahiaren arabera sailkatzea.

Hitzaren letra-kopurua zenbatzea.

Hitzen fonema-grafia identifikatzea eta idaztea.

Hitzen osaera: letra-kopurua.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Jolasaren galde-erantzunak idaztea, laguntzarekin letra-kopurua eta hasiera nahiz amaierako letra adieraziz jolasteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

2.1. Idazten du jolasaren sekuentzia, laguntzarekin.

#### **Literatura- hizkuntza**

##### **Edukiak**

«Ikusi-makusi» jolasa eta zentzumenen jolasa erabiltzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

3. Ikusi-makusian jolastea, gauzen ezaugarrietan oinarrituz eta galde-erantzunen segidari jarraituz, ikasleen komunikazioa garatzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

3.1. Badu euskaraz jolasteko gogoia.

3.2. Ondo hautatzen ditu aukeratutako gauzaren, animalia-aren, pertsonaren eta abarren ezaugarriak.

3.3. Badaki izenaren hasiera eta amaierako letra adierazten.

- 3.4. Izendatzen ditu letrak, eta badaki bakoitzari zer hots dagokion.
- 4.4. Ondo esaten ditu ahozko pistak, jolasari jarraitzeko.
- 4.5. Badaki izenak ezaugarrien arabera sailkatzen.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### **Edukiak**

Hitzen esanahia bereiztea (gauza, pertsona, landarea...).

Gauzen forma: laukia, zirkulua...

Tamaina: handia, txikia...

Egiturak: ikusi-makusi, zer ikusi, ikusten dut... zer da?, nolakoa da?, hasten da..., amaitzen da..., zenbat letra ditu.

### **Ebaluazio-irizpideak**

4. Pertsonen, animalien, gauzen... ezaugarriak ezagutzea, pisten bidez ikasleen komunikazioa garatzeko.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 5.1. Ondo adierazten ditu ezaugarriak: tamaina, kolorea, forma, letra-kopurua.
- 5.2. Ondo erabiltzen ditu egiturak: ikusi-makusi, zer ikusi, ikusten dut... zer da?, nolakoa da?, hasten da..., amaitzen da..., zenbat letra ditu.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Jolasean erabiliko den gaia kontuan hartuz, pertsonen, fruten, animalien... ezaugarriak adieraztea.
- Zentzumenak.
- Kopurua adieraztea.
- Sailkapenak egitea.
- Ordena adieraztea: lehena, azkena.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Ahozko mezuak ulertzea eta sortzea.
- Ezaugarriak adieraztea.
- Ezaugarriak ulertzea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Lana planifikatzea eta egitea.
- Talde-lanean aritzea.

### **Gaitasun digitala**

- Izenen ezaugarrien inguruko informazioa jasotzea eta sailkatzea.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Ekoizpenetan edo jolastean, besteen hutsegiteak errespetatzea eta onartzea.



## **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Irudimena erabiltzea, ezaugarriak aukeratzeko orduan.

## **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Pistak eman baino lehen, ondo pentsatzea, eta, gero, adieraztea.

# **10. UNITATEA**

## **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, animalia baten deskripzioa ahoz adieraziko dute, eta fitxa egingo dute, fitxategi bat osatzeko.

Animalien gaia landuko dute. Gogoko maskota deskribatuko dute, ahoz; ondoren, fitxa batean, haren ezaugarriak idatziko dituzte: izena, zer animalia den, zer gorputz atal dituen eta zer egiten duen. Informazio guztiarekin, animalia bitxiak asmatu, eta idatzi egingo dute ikasitakoa.

## **METODOLOGIA**

---

Banaka egingo dute lan; bakoitzak bere fitxa idatziko du.

Eredua ulertu eta berridatziko dute, euren fitxa sortzeko.

CDan, animaliei buruzko informazioa entzungo dute; informazio hori ulertu, datuak jaso eta ondorioak aterako dituzte.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

#### **Edukiak**

- Animalien deskripzioa egitea.
- Entzun eta datuak identifikatzea.
- Datuak jasotzea.
- Maskoten beharraz mintzatzea.

#### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Animalia baten ahozko deskripzioa egitea, irudien laguntzaz, jasotako datuak bizitzako egoeretan erabiltzeko.

#### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Identifikatzen, bereizten eta izendatzen ditu animalien ezaugarriak.
- 1.2. Keinu edo marrazkien bidez, badaki animaliak zer duen eta nola mugitzen den ulertzen eta adierazten.
- 1.3. Ondo identifikatzen eta adierazten ditu animalien beharrak.

## **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

### Edukiak

- Animalien fitxa eta haren atalak bereiztea.
- Irudiak interpretatzea.
- Besteek egindako fitxa irakurtzeko interesa.
- Animaliei buruzko informazioa jasotzeko interesa.

### Ebaluazio-irizpideak

2. Benetako edo asmatutako animalia baten fitxa idaztea, haren atalak bereiziz, fitxa guztiekin fitxategia osatzeko eta nahi dutenean irakurtzeko.

### Ikasketa-adierazleak

- 2.1. Ereduaren laguntzaz, badaki fitxa idazten.
- 2.2. Jasotzen du animaliar buruzko informazioa.
- 2.3. Informazioa esateko edo idazteko erabiltzen du.
- 2.4. Era ordenatuan antolatzen du informazioa.
- 2.5. Animalia berri bat sortzen du, besteen ezaugarriak erabiliz.

## **Literatura- hizkuntza**

### Edukiak

- Abestiak ulertzea eta ikastea.

### Ebaluazio-irizpideak

3. Abestia ikastea, adierazten duena mimikaren bidez egiteko.

### Ikasketa-adierazleak

- 3.1. Gogoz abesten ditu abestiak.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### Edukiak

- Animalien deskripzioa: zer da, zer du, zer egiten du.
- Animalien gorputz atalen izenak: mokoia, lumak, hankak, eskola, ...
- Ekintzak: du/ditu.

### Ebaluazio-irizpideak

4. Deskripzioaren atalak bereiztea eta atal bakoitzeko informazioa zuzen adieraztea.

### Ikasketa-adierazleak

- 4.1. Egitura egokia erabiltzen du animaliak deskribatzean: zer den, buruan eta gorputzean zer duen, eta zer egiten duen.
- 4.2. Ondo esaten eta idazten du atal bakoitzari buruzko informazioa, laguntzarekin.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Animaliak eta haien ezaugarriak.
- Animaliekiko errespetua.
- Animalien sailkapena, irizpideak kontuan hartuz.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Deskripzioak ahoz egitea.
- Fitxak idaztea.
- Idatziak ulertzea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Dakitena beste egoera batzuetan erabiltzea, animalia berria sortzean.

### **Gaitasun digitala**

- Animalien inguruko informazioa jasotzea, hainbat baliabide erabiliz.

### **Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Ekoizpenetan edo jolastean, besteen hutsegiteak errespetatzea eta onartzea.

### **Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Irudimena erabiltzea, animalia sortzeko orduan.
- Sortutako animalia marraztea.

### **Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Erabakiak hartzea eta betetzea.

## **11. UNITATEA**

### **AZALPENA**

---

Azken xede moduan, jai-giroan, ikasturtean zehar egindakoaren balioespena egingo dute, eta ahoz adieraziko dute. Azken unitatea da. Urtean zehar egindako ekintzen balioespen orokorra egiten ikasiko dute. Zer gustatu zaien eta zer ez esaten ikasiko dute. Jai-giroan aurkeztu nahi zaie, eta jolastokirako eta gelarako zenbait jolas ikasiko dituzte. Edukiak berrikusteko, antzara-jolasean jolastuko dira. Azkenik, euskal kulturako «Galtzagorriak» ipuina entzun eta ulertuko dute.

### **METODOLOGIA**

---

Taldeka, jolasen bidez, euskaraz hitz egingo dute, eta orain arte landutakoa

berrikusiko dute.

CDA erabiliko da, egin duten balioespenaren eredia ikasteko eta mitologiako pertsonaien ipuina entzuteko.

Banaka, bakoitzak urteko balioespena egingo du, ahoz.

Banaka, urtean zehar zer ikasi duten adieraziko dute, ikurren bidez.

Autoebaluazioa egingo dute.

## **EDUKI MULTZOAK**

### **Edukiak / Ebaluazio-irizpideak / Ikasketa-adierazleak**

---

#### **Ahozko komunikazioa: entzutea, hitz egitea eta elkarrizketan aritzea**

##### **Edukiak**

Balioespenak adieraztea.

Bizkotxoia nola egin adieraztea.

Jolasen arauak ulertzea.

Mahai-jolasean aritzea, solasaldian.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

1. Hainbat motatako jolasak eta abestiak ikastea, arauak ulertuz, euren bizitzako jolas-egoeretan erabiltzeko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 1.1. Ulertzen ditu jolasak, eta jolasten da.
- 1.2. Irudien laguntzaz edo keinuen bidez, ondo ulertzen du besteek diotena, eta badaki hainbat eratan adierazten.
- 1.3. Ondo ulertzen du testua, eta badaki bertan esaten dena egiten.
- 1.4. Ikasten ditu abestiak, eta abesten ditu.
- 1.5. Gogoz parte hartzen du ahozko adierazpenetan.
- 1.6. Jolas-arauak betetzeko, egiten ditu elkarrizketa errazak.

#### **Komunikazio idatzia: irakurtzea eta idaztea.**

##### **Edukiak**

Balioespena adieraztea.

Irudiak interpretatzea.

Jolaseko arauak edo aginduak ulertzea.

##### **Ebaluazio-irizpideak**

2. Balioespena adierazten ikastea, ahoz zein idatziz, bizitzako hainbat egoeratan erabiltzeko.
3. Errezeta ulertzea, irudiak interpretatuz eta jarraibideak betez, bizkotxoia egiteko.

##### **Ikasketa-adierazleak**

- 2.1. Idazten du ikasturtearen balioespena.
- 2.2. Badaki txukun eta era ulergarrian idazten.
- 3.1. Ondo aukeratzen ditu osagaiak eta eman behar diren pausoak.

## **Literatura- hizkuntza**

### **Edukiak**

- Galtzagorrien ipuina ulertzea.
- Esku-jolasetara jolastea.

### **Ebaluazio-irizpideak**

4. San Joan eta hari loturiko pertsonaiak ezagutzea, ipuinaren bidez kulturaz jabetzeko.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 4.1. Ulertzen du ipuina, eta badaki irudiak ordenatzen.
- 4.2. Deskribatzen ditu ipuineko pertsonaiak.

## **Hizkuntzari buruzko hausnarketa eta hizkuntzaren dimentsio soziala.**

### **Edukiak**

- Aditza: zait / zaizkit.
- Ezezko esaldien ordena.
- Irakurtzen dut, idazten dut, ulertzen dut, hitz egiten dut...

### **Ebaluazio-irizpideak**

5. Ahozko eta idatzizko adierazpenetan, laguntzarekin, egitura zuzenak ulertzea eta erabiltzea.

### **Ikasketa-adierazleak**

- 5.1. Ondo adierazten du ikasturteko balioespena.

## **GAITASUNAK**

---

### **Matematikarako gaitasuna, eta zientzia eta teknologiarako oinarrizko gaitasunak**

- Urtean zehar landutako gaiak: animaliak, gorputza...
- Sailkapenak egitea.
- 50 arteko zenbakiak.

### **Hizkuntza-komunikaziorakoa**

- Arauak interpretatzea.
- Informazioa euskaraz ematea.
- Errezeta idaztea eta interpretatzea.
- Elkarrizketan aritzea.
- Abestiak ulertzea.

### **Ikasten ikastekoa**

- Urtean zehar landutako informazioa gogoratzea.

**Gaitasun digitala**

- Lehendik ezagutzen duten informazioa jolasteko erabiltzea.

**Gizarte-gaitasunak eta gizabidezkoak**

- Lankidetzan aritzea, jolasa ateratzeko.
- Taldeka jolastea, arauak errespetatuz.

**Kulturaren inguruko kontzientzia eta adierazpenak**

- Euskal kulturako asmakizunak, abestiak, ohiturak... ulertzea eta horiekin jolastea.

**Ekimena eta jarrera ekintzailea**

- Autoebaluazioa. Urtean zehar zer ikasi duten: irakurri, ulertu, hitz egin...